


LOPE AGIRRE

- JAIOTZA: 1510ean jaio zen Oñatiko Araotz auzoan.
- HERIOTZA: 1561. urtean hil zuten Venezuelan.



Lope Agirre Oñatiko bi eskribauen* semea zen eta horregatik zekien hain ondo irakurtzen eta idazten. Gainera, espainolez ere oso ongi hitz egin eta idazten zuen.

Garai horretan, Espainiako jende asko joan zen Amerika konkistatzera. Borroka asko egiten zituzten eta espainiarrei kontra egiten zieten Amerikarrak gogor zigortzen zituzten eta askotan baita hil ere.

Konkistatzaile horietako bat Francisco Pizarro izan zen eta Amerikan urte batzuk pasa eta gero Sevillara bueltatu zen. Momentu horretan Lope Sevillan zegoen eta Franciscok Ameriketako altxorren istorio izugarriak kontatu zizkion. Urrea eta aberastasunarekin ametsetan hainbat espedizio egin zituen Ameriketara. Baina bazen egitera ausartu ez zen espedizio bat: El Dorado.

Kondairetan eta kontakizunetan Amerikarrek esaten zuten bazela urrezko leku bat, aberastasuna eta urrea besterik ez zuen leku bat eta horri El Dorado deitzen zioten. Bada, Pedro Urtsua kapitainak erabaki zuen El Dorado topatzeko espedizioa antolatzea eta bertan Lope Agirrek izena eman zuen.



1560an abiatu ziren Amazonas ibaian barrena hiru ontzitan 300 konkistatzaile, afrikar esklabo batzuk eta 500 morroi indigena. Bidean aurrera egiten zuten, baina ez zuten urrerik aurkitzen eta Pedro kapitainarekin kokoteraino bukatu zuten.





Orduan, Lope Agirre eta beste batzuek hil egin zuten kapitaina eta Lope bihurtu zen soldadu guztien buruzagia. Gainera, momentu horretan Espainiako errege zen Felipe II.ari kasurik ez egitea erabaki zuen. Erregeak Amerikako lurak Espainakoak izatea nahi zuen eta hor ere agindu, baina Lopek beste ideia bat zuen.

Bere ontziko pertsona bat izendatu nahi zuen Peru eta Txileko errege eta egin ere egin zuen. Honen abisua emateko Felipe II.ari gutun oso ezagunak bidali zizkion eta erregea, noski, asko haserretu zen Loperekin. Gutun horiek Margarita uhartetik idatzi zizkion. Beranduago kontra egin zioten eta garaitua izan zen eta hil egin zuten.

Bitxikeria bezala esan daiteke Margarita uhartean kalitate oso oneko kakaoa dagoela eta Lopek ziur probatuko zuela bertako kakaoa. Gainera, gaur egun oso ezaguna da bertako txokolatea.

